

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Oposaketak eta lehiaketak

#### SEGURTASUN SAILA

## 1673

*EBAZPENA, 2021eko martxoaren 2koa, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiarena, Ertzaintzaren Ikuskapen Eskalako ofizial kategoriara igotzeko hautaketa prozedurarako deialdia egiten duena.*

Deialdi hau egiten da honako hauen arabera: Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko Legearen testuategina onartzen duen uztailaren 22ko 1/2020 Legegintzako Dekretuaren, Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzeke ekainaren 28ko 15/2012 Legearen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Hautaketa- eta Prestakuntza-araudia onartzen duen uztailaren 19ko 315/1994 Dekretuaren eta Dekretu hori aldatzen duten maiatzaren 21eko 111/2002 Dekretuaren eta otsailaren 17ko 36/2004 Dekretuaren arabera.

Era berean, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako Kontseilu Errektoreak jarduera onartu du, eta Segurtasuneko sailburuordeak eskaera egin du.

Hori guztia oinarri hartuta, Zuzendaritza Nagusi honek ebatzi du Ertzaintzaren Ikuskapen Eskalako ofizial kategoriara igotzeko hautaketa-prozedurarako deialdia egitea, honako klausula hauen arabera:

### OINARRIAK

Lehenengoa.– Deialdiaren xedea.

Oposizio-lehiaketa bidezko hautaketa-prozedurarako deialdia egiten da, barne-sustapenaren bidez. Prozedura osatzeko, prestakuntza-ikastaro bat eta praktikaldi bat egingo dira, Ertzaintzako Ikuskapen Eskalako ofizial kategorian C Taldeko 50 plaza betetzeko. Lanpostu horiek Euskal Administrazio Publikoetako funtzionarioen sailkapeneko C-1 azpitaldekoak izango dira, sartzeko eskatzen den titulazioaren arabera. Horiek guztiek Ertzaintzaren 2. hizkuntza-eskakizuna dute, derrigortasun-datarik gabe.

Deitutako plaza kopurua handitu ahal izango da Ertzaintzako ofizial kategoriako lanpostu hutsen arabera, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako Zuzendaritza Nagusiaren Ebazpenaren bidez, Euskal Herriko Poliziaren Hautaketa eta Prestakuntzarako Araudia onartzen duen uztailaren 19ko 315/1994 Dekretuaren 40.2 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik eta Hemezgarren Oinarrian aurreikusitako moduan argitaratuko da.

Handitze hori Hamaikagarren Oinarriko 3. zenbakian aurreikusitako izapidearen aurretik egin beharko da.

Bigarrena.– Parte hartzeko baldintzak.

1.– Hautaketa-prozeduran parte hartu nahi duten pertsonak, onartuak izateko, baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Aurretiazko eskaera egitea.

b) Oinarrizko Eskalako edo Ikuskapen Eskalako ofizialorde Kategoriako Ertzaintzako karrerako funtzionario izatea.

c) Oinarrizko Eskalakoa izanda, benetako zerbitzuetako 4 urte beteta izatea.

Benetako zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 22ko 1/2020 Legegintzako Dekretuaren 78. artikuluan ezarritakoaren arabera zenbatuko dira.

Jatorrizko kategorian edo eskalan benetan lan egindako denbora zenbatzeko, Ertzaintzako karrerako funtzionario gisa barne-sustapenean sartzeko aukera ematen duten administrazio-egoeretan igarotako denborari gehitu egingo zaio barne-sustapenean sartu aurreko praktikei dagokiena, betiere hautaketa-prozesua gainditu bada.

d) Pertsona horiek falta astuna edo oso astuna egiteagatik zigorrik jaso ez izana, ezarritako zehapena baliogabetzea lortu ez bada behintzat.

2.– Prozeduran parte hartu nahi dutenek aurreko atalean ezarritako betekizun guztiak bete beharko dituzte eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen, nahiz eta horiek egiaztatzeko prozeduraren fasea ere bete beharko duten.

3.– Pertsona hori hautaketa-prozeduran onartu eta parte hartu ahal izateko, nahikoa izango da eskabidean adieraztea eskatutako baldintza guzti-guztiak betetzen dituela, betiere eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunari dagokionez. Deialdia egin duen organoak ofizioz egiaztatuko ditu betekizun horiek, eta, horretarako, Giza Baliabideen Zuzendaritzaren dagokion ziurtagiria beharko da.

4.– Hala ere, aurreko paragrafoan xedatutakoak hautaketa-prozeduraren edozein unetan, prestakuntza-ikastaroan edo praktikaldian, onartutakoen eta baztertutakoen zerrenda onartzeko eskumena duen organoari jakinarazten bazaio haietako batek ez dituela deialdian parte hartzeko baldintzak betetzen, hautaketa-prozeduratik kanpo utziko du, edo, hala badagokio, prestakuntza-ikastarotik edo praktikalditik kanpo, aldeztatik entzunda.

5.– Hautaketa-prozedura honetan parte hartzea borondatezkoa da, eta, beraz, proba psiko-teknikoak eta nortasun-probak egiteko baimena eman beharko da, eta proba horien emaitza balorazio-faktore gisa erabiltzea onartuko da, oinarri hauetan aurreikusitakoaren arabera.

Hirugarrena.– Eskaerak.

1.– Hautaketa-prozeduran parte hartu nahi dutenek eskaera egin beharko dute Gurenet saileko intranetaren bidez, bertan eskuragarri egongo den eskaera-eredua betez.

2.– Eskaerak aurkezteko epea 20 egun baliodunekoa izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

3.– Eskaeran, oposizio-probak zein hizkuntzatan (euskaraz edo gaztelaniaz) egin nahi diren adierazi beharko da.

4.– Eskaeran adierazi beharko da eskaera aurkezteko epea amaitzen den egunean baldintza guzti-guztiak betetzen direla.

5.– Merezimenduak eskaeran alegatu beharko dira. Bertan alegatu ez diren merezimenduak ez dira baloratuko. Administrazio jarduleak ez ditu egiaztatu beharko dagoeneko jasota dauden merezimenduak, eta ofizioz egiaztatuko ditu, baloratu beharreko merezimendu guztiak prozesuan parte hartzen duten pertsonen espediente pertsonaletan jaso behar baitira.

Laugarrena.– Izangaiak onartzea.

1.– Eskaerak aurkezteko epea amaituta, eta Bigarren Oinarrian ezarritako baldintzak betetzen direla ofizios egiaztatu ondoren, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako Zuzendaritza Nagusiak onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda onartuko du, eta Hemeretzigarren Oinarrian aurreikusitakoarekin bat etorriz argitaratuko da.

2.– Baztertutako pertsona bakoitzari dagokionez, baztertzea eragin duten arrazoiak adieraziko dira behin-behineko zerrendan, eta 10 egun balioduneko epea emango da erreklamazioak egiteko eta eskaerak dituen akatsak zuzentzeko.

3.– Aurkeztutako erreklamazioak onartu edo baztertuko dira onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda behin betiko egiten duen ebazpenean, eta zerrenda hori argitara emango da lehenengo zenbakian aurreikusitako moduan.

4.– Zerrenda horietan, bai eta argitaratzen diren ondorengo zerrendetan ere, pertsonaren identifikazioa jasoko da, zenbaki profesionala adierazita.

Bosgarrena.– Epaimahai kalifikatzailea.

1.– Oposizio-lehiaketako probak zehaztu, garatu eta ebaluatzeke eta parte-hartzaileak hautatzeko, Epaimahai kalifikatzaile bat eratuko da, Euskal Herriko Poliziari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 22ko 1/2020 Legegintzako Dekretuan eta uztailaren 19ko 315/1994 Dekretuan aurreikusitakoaren arabera, Epaimahai hori mahaiburu batek, bi mahaikidek eta idazkari batek osatuko dute.

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako Zuzendaritza Nagusiaren ebazpen baten bidez jakinaraziko da Epaimahai Kalifikatzailea osatzen duten pertsonen eta haien ordezkoren izendapena, Hemeretzigarren Oinarrian aurreikusitakoaren arabera. Otsailaren 28ko 4/2005 Legean xedatutakoaren arabera, haren osaeran emakumeen eta gizonen ordezkariak ere sartuta egongo da.

2.– Epaimahai kalifikatzailearen jarduna kide anitzeko organoen funtzionamendua arautzen duten arauen arabera arautuko da, eta, bereziki, Euskal Herriko Poliziari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 22ko 1/2020 Legegintzako Dekretuaren 67. eta 68. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Epaimahai kalifikatzailea osatzen duten pertsonen Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 28. eta 29. artikuluetan jasotako abstentzio- eta errekusazio-arrazoiak aplikatuko zaizkie.

Epaimahai kalifikatzaile honetan parte hartzeak aurreikusitako legezko kalte-ordainak jasotzea ekarriko du.

3.– Hautaketa-sistema osatzen duten probak eta merezimenduak garatzea eta ebaluatzea Epaimahai kalifikatzaileari dagozkio; autonomia funtzional osoz jardungo du, prozeduraren objektibotasunaren erantzule izango da eta deialdiaren oinarriak betetzen direla bermatuko du.

4.– Epaimahai Kalifikatzaileak aholkulariak edo espezialistak jarri ahal izango ditu bere lanetan, hautaketa-sistemak jasotzen dituen proba guztietarako edo batzuetarako. Aholkulari edo espezialista horiek aholkularitza eta laguntza teknikoa ematera mugatuko dira beren espezialitateak gauzatzean.

5.– Epaimahai kalifikatzaileak behar diren neurriak hartu ahal izango ditu hautaketa-sistema garatzeko, oinarri hauetan aurreikusi ez den guztian, eta sistema interpretatzeari eta aplikatzeari buruz sortzen diren arazoak ebatzi ahal izango ditu, bai eta bere eginkizunak betetzeari buruzkoak ere.

6.– Epaimahaiak ezin izango du deialdiko plazen kopurua baino hautagai gehiago hautatu, eta erabat deusezak izango dira muga hori hausten duten proposamen guztiak.

7.– Epaimahai kalifikatzailearen Erabakiak Hemeretzigarren Oinarrian aurreikusitakoaren arabera argitaratuko dira.

8.– Epaimahai kalifikatzaileari zuzendutako idazkiak helbide elektronikoko honetara bidaliko dira:

2021ofizialak@seg.euskadi.eus

Seigarrena.– Hautaketa-prozesua.

1.– Hautaketa-prozesua oposizio-lehiaketa izango da; hau da, oposizio- eta lehiaketa-prozedurak egingo dira, parte hartzen dutenen gaitasuna eta ondoriozko lehentasun-ordena zehazteko.

2.– Lehiaketa-fasea ez da baztertzailerik izango, eta bertan lortutako puntuazioa ezin izango da kontuan hartu oposizioari ariketak gainditu direla ulertzeko edo horietan lortutako kalifikazioak aldatzeko.

3.– Hala ere, Euskal Herriko Poliziari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 22ko 1/2020 Legegintzako Dekretuaren 79. artikulua araberako, ofizialaren kategoriarako barne-sustapenerako ez da eskatuko jatorrizko kategoria horretan (ofizialordea) barne-sustapeneraren bidez sartzeko eskatzen diren ezagutzak egiaztatze probak egitea, dagokion oinarrian zehazten denaren arabera.

Zazpigarrena.– Oposizioa.

Oposizioa bata bestearen atzetik egingo diren honako probek osatuko dute:

1.– Lehenengo proba, nahitaezkoa eta baztertzailerik: ezagutzen proba bat izango da eta test erako galdetegia idatziz erantzun beharko da.

Probaren edukia ebazpen honen eranskinean zehaztuta dago.

Test erako galdetegiko galdera bakoitzean lau erantzun aukera izango dira. Lau aukera horietatik bat bakarrik izango da erantzun zuzena.

Proba honetan, erantzun zuzen bakoitzak puntu bat izango du, eta erantzun okerrak erantzun zuzen baten balioaren herena kenduko du. Erantzun bat baino gehiago dituzten galderak erantzun gabekotzat joko dira. Erantzun gabeko galderak ez dute penalizatuko.

Proba hori gai edo ez-gai kalifikazioarekin baloratuko da, eta automatikoki baztertuko dira GAI kalifikazioa lortzen ez dutenak. Gai deklaratzeko, izangaiak probaren galderen erdiaren edo gehiagoren puntuazioa lortu beharko du.

Artikulu honetan xedatutakoaren arabera: Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 22ko 1/2020 Legegintzako Dekretuaren 79. artikulua araberako, Ertzaintzako ofizialorde kategoriarekin Ertzaintzako karrerako funtzionario diren izangaiek ez dute proba hori egin beharrik izango, eta, automatikoki, Gai kalifikazioa emango zaie.

2.– Bigarren proba, nahitaezkoa eta baztertzaila, proba psikoteknikoa. Otik 300era bitartean baloratuko da. Bigarren proba honetan bi ariketa izango dira, biak nahitaezkoak eta baztertzailak:

a) Ofizial kategoriako polizia-eginkizunak betetzeko izangaien gaitasunak ebaluatzeko proba. Idatziz ondorengo aldagarriak erantzutean datza: hitzezko gaitasunari buruzko ariketa, arrazoitze-arriketa, pertzepzioari buruzko ariketa (identifikazioa, ezberdintasuna...) eta datuak interpretatzeko gaitasunak.

Test erako galdetegi bakoitzeko galdera bakoitzak lau erantzun aukera izango ditu eta bat bakarra izango da zuzena.

Proba honetan, erantzun zuzen bakoitzak puntu bat izango du, eta erantzun okerrak erantzun zuzen baten balioaren herena kenduko du. Erantzun bat baino gehiago dituzten galderak erantzun gabekotzat joko dira. Erantzun gabeko galderak ez dute penalizatuko.

Proba hori Otik 150era bitartean baloratuko da eta gutxienez 75 puntu lortzen ez dutenak automatikoki bazter geratuko dira.

Hautaketa-sistema egokia izan dadin, Epaimahai kalifikatzaileak, eska daitekeen gutxieneko maila eta proba honetan erakutsitako ezagutza-maila kontuan hartuta, eta izangaiak nor diren jakin aurretik, ariketa hau gainditzeko behar den gutxieneko puntuazioa ezartzeko puntuazio-atalasea erabaki ahal izango du, eta erabaki hori publiko egingo du. Kasu horretan, ariketaren puntuazioa lortzeko, aurreko paragrafoan deskribatutakoaren arabera, Epaimahai kalifikatzaileak honako formula hau aplikatuko du:

$$HAP = (AP_{geh} / 2) \times (1 + (PZ - m) / (PZ_{geh} - m)).$$

Hau da:

HAP = Hautagaiak lortutako azken puntuazioa.

AP<sub>geh</sub> = Ariketan gehienez lor daitekeen azken puntuazioa (Deialdiaren oinarrien arabera, ariketan lor daitekeen puntuazio gehiena: 150 puntu).

PZ = Hautagaiak lortutako zuzeneko puntuazioa:

$$PZ = Zuzenak - (Hutsegiteak / (n - 1)).$$

«n» galdera bakoitzaren erantzun aukera kopurua da (4).

Erantzun gabeko galderak ez dira zigortuko eta ez dira hutsegiteak izango.

m = Epaimahaiak ezarritako ariketa gainditzeko behar den gutxieneko puntuazio-atalasea.

PZ<sub>geh</sub> = Ariketaren zuzeneko puntuazio maximoa (ariketan lor daitekeen zuzeneko puntuazio maximoa = Azterketa baten erantzun zuzenen kopurua, galdera zuzen guztiekin).

b) Lanarekin zerikusia duten jarrerak neurtzeko nortasun-testa. Ariketa Otik 150era bitartean baloratuko da eta gutxienez 75 puntu ateratzen ez dituztenak automatikoki baztertuta geratuko dira.

Ariketa hori deitutako lanpostuaren lanbide-profilaren arabera izango da.

Proba hau egiteko eguna, ordua eta tokia ezartzen dituen Epaimahaiaren Erabakian, Ertzaintzako ofizialaren lanbide-profilean ezarritako jokabideak edo gaitasunak zehaztuko dira, eta

baloratu egingo dira, baita horietako bakoitzari esleitutako balioa eta ariketa hau gainditu ahal izateko lortu beharreko puntuazioa ere.

Zortzigarrena.– Oposizio-proben garapena.

1.– Probak ezin izango dira hasi deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta bi hilabete igaro arte.

2.– Lehenengo ariketa egiteko eguna, ordua eta tokia Epaimahai Kalifikatzaileak iragarriko ditu, Hemeretzigarren Oinarrian aurreikusitakoaren arabera, gutxienez zazpi egun natural lehenago. Gainerako ariketak argitaratzeko iragarkiak gutxienez hirurogeita hamabi ordu lehenago argitaratuko dira, Hemeretzigarren Oinarrian aurreikusitakoaren arabera.

3.– Aurreko zenbakian ezarritakoa gorabehera, Epaimahai Kalifikatzaileak probak eta ariketak deialdi honetan ezarritakoaz bestelako hurrenkeran egitea erabaki ahal izango du, baita egun berean hainbat proba egitea ere. Kasu horretan, proben eta/edo ariketen emaitzen argitalpenek deialdiaren oinarrietan ezarritako ordenari jarraituko diote. Proba eta/edo ariketa bakoitzaren emaitzak aurrekoak gainditu dituztenen artean bakarrik argitaratuko dira, zazpigarren oinarrian ezarritako ordenari jarraituz.

4.– Epaimahaiak nahitaezko probak egiteko egindako deialdira adierazitako egunean, orduan eta lekuan agertzen ez direnak hautaketa-prozeduratik kanpo geratuko dira, baita ezinbesteko arrazoiengatik ere. Arau bera aplikatuko zaie nahitaezko edozein proba eta/edo ariketa egitera behin proba eta/edo ariketa horiek egiten hasita daudenean aurkezten direnei.

Nahitaezko probaren batek hainbat ariketa baditu, haietako batera ez aurkeztea edo horietako edozeinetara atzeratzea ez bertaratutzat joko da.

5.– Parte hartzailearen nortasuna egiaztatzen duen dokumentazioa eraman beharko da probetara, eta Epaimahai Kalifikatzaileak beti eskatu ahal izango du agiri horiek aurkeztea.

6.– Proba baztertzailer bakoitza amaitzean, Epaimahai Kalifikatzailearen Erabakiaren bidez, eta Hemeretzigarren Oinarrian aurreikusitakoarekin bat etorriz, proba gainditu dutenen eta kanpoan geratu direnen zerrenda argitaratuko da, lortutako puntuazioa berariaz adierazita.

7.– Izangaiek Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialetako edozeinetan egin ahal izango dituzte oposizioko ariketak.

Bederatzigarrena.– Lehiaketa.

1.– Lehiaketa-fasearen kalifikazioa oposizio-fasea gainditu duten pertsoneri bakarrik aplikatuko zaie. Ezin izango dira baloratu eskaeran alegatu ez diren merezimenduak.

2.– Merezimenduak eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunaren arabera baloratuko dira.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Hautaketa eta Prestakuntzarako Erregelamendua onartzen duen uztailaren 19ko 315/1994 Dekretuaren 13.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, ezin izango dira merezimendutzat hartu deialdian parte hartzeko eskatutako betekizunak eta baldintzak.

4.– Administrazio jarduleak ez ditu egiaztatu beharko dagoeneko jasota dauden merezimenduak, eta ofizioz egiaztatuko ditu.

Hori oinarri hartuta, Epaimahai Kalifikatzaileak Giza Baliabideen Zuzendaritzari eskatuko dio oposizio-aldia gainditu duten pertsonen merezimenduak egiazta ditzala, Oinarri honen 5. atalean

ezarritako parametroen arabera, baloratu beharreko merezimendu guztiak Zuzendaritza horren datu-baseetan jasota baitaude.

5.– Lehiaketa-fasean, merezimenduak baloratuko dira 90 punturaino, baremo honen arabera:

5.1.– Lanbide-historia gehienez ere 30 punturekin baloratuko da; ondorio horietarako, honako hauek hartuko dira kontuan:

a) Polizia-lanean lortutako aintzatespenak.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia-kidegoetako ofizialorde kategoriakoa eta agente lehena kategoriakoa izatea.

c) Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia-kidegoetako Ikuskapen Eskalako lanpostuetan lanbide-jarduna edo zereginak betetzea, Euskal Autonomia Erkidegoko polizia-kidegoetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko araudia onartzen duen 388/1998 Dekretuaren II., III. eta IV. kapituluetan aurreikusitako edozein hornidura-moduren bidez lortutakoak.

5.1.1.– Polizia-lanean lortutako aintzatespenak 10 punturaino baloratuko dira gehienez. Ertzaintzako zerbitzu-egintzaren deklarazioa eta kondekorazioen eta ohorezko sarien erregimena arautzen dituen urriaren 16ko 202/2012 Dekretuan araututako aitortpenak ematea baloratuko da, baremo honen arabera:

a) Polizia-lana aintzatesteko bereizgarri gorridun domina: 10 puntu.

b) Polizia-lana aintzatesteko bereizgarri berdedun domina: 7 puntu.

c) Polizia-lana aintzatesteko bereizgarri zuridun domina: 5 puntu.

d) Polizia-zerbitzuko bereizgarri gorridun diploma: 3 puntu.

e) Polizia-zerbitzuko bereizgarri zuridun diploma: 2 puntu.

5.1.2.– Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia-kidegoetako ofizialorde kategoriakoa eta agente lehena kategoriakoa izatea 10 punturaino baloratuko da gehienez, baremo honen arabera:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia-kidegoetako ofizialorde Kategoriako karrerako funtzionario izatea, kategoria horretako urte oso bakoitzeko 2 puntu emango dira (unitatetik beherako zatikiak alde batera utzita), eta gehienez ere 10 puntu.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko polizia-kidegoetako agente lehena Kategoriako Karrerako funtzionario izatea, kategoria horretako urte oso bakoitzeko puntu 1 emango da (unitatetik beherako zatikiak alde batera utzita), gehienez ere 10 punturekin.

Aipatutako kategorietako kide izandako denbora zenbatzeko, kategoria horretako karrerako funtzionario izendatu zutenetik igarotako denbora baloratuko da, eta kategoria horretako praktikei dagokienarekin handituko da, betiere hautaketa-prozesua gainditu bada.

Zenbaketari dagokionez, aldi bakoitzari dagozkion egunak batu egingo dira, eta batura zati 365 egingo da.

5.1.3.– Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia-kidegoetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko araudia onartzen duen 388/1998 Dekretuaren II., III. eta IV. kapituluetan aurreikusitako lanpostuak betetzeko moduetako edozeinen bidez lortutako lanbidean aritzea edo lanpostuetan aritzea, gehienez ere 10 punturekin, baremo honen arabera:



– Ertzaintzako ofizial kategoriako lanpostuetan lanean edo zereginetan aritzea: 2 puntu urte oso bakoitzeko (unitatetik beherako zatiak alde batera utzita), 10 puntu gehienez.

– Ertzaintzako ofizialorde lanpostuetan lan egitea: urte oso bakoitzeko puntu 1 emango da (unitatetik beherako zatiak alde batera utzita), eta gehienez ere 10 puntu emango dira.

Zenbaketari dagokionez, aldi bakoitzari dagozkion egunak batu egingo dira, eta ateratzen den batura 365 zatitan banatuko da.

Lanpostu bakoitza lanpostuen zerrendan jasotako lanpostu-kodearen arabera identifikatuko da. Lanpostu-kode bereko hainbat dotazio ez dira hainbat lanpostutzat hartuko.

5.2.– Ikasketak, gaikuntza eta lanbide-hobekuntzako jarduerak baloratuko dira, gehienez ere 60 punturekin. Atal honetan sartzeko dira espezializazio-ikastaroen balorazioa, titulazio eta diploma ofizialak eta ingelesa, frantsesa eta alemana jakitea.

#### 5.2.1.– Egindako espezializazio-ikastaroak.

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak egindako edo aitortutako espezializazio-ikastaro bakoitzeko, 10 puntu emango dira, bertako datuekin bat etorritik, eta ezingo dira inola ere 20 puntu baino gehiago lortu atal honetan.

Atal honetan aipatzen den espezializazio-ikastaroen katalogoa honako hauetara mugatzen da:

- a) Ikerketa Kriminalari buruzko ikastaroa (edozein izenetan) eta/edo Atestatuei buruzkoa.
- b) Trafikoari buruzko ikastaroa eta/edo Trafiko eta Bide-segurtasunari buruzko ikastaroa.
- c) Txakur-gidaria.
- d) Eskolten gaikuntza ikastaroa.
- e) Esku-hartzeko gaikuntza ikastaroa.
- f) Brigada Mugikorreko ikastaroa.
- g) Helikopteroetako pilotuen ikastaroa osoa.
- h) LIUrako gaikuntza ikastaroa.

Atal hau baloratzeko, trafikoko espezializazio-ikastaroa eta trafikoko eta bide-segurtasuneko espezializazio-ikastaroa egin eta gainditu izana 10 punturekin baloratuko da, eta espezializazio-ikastaro bakartzat hartuko da.

Era berean, atestatuaren espezializazio-ikastaroa eta Ikerketa Kriminalerako espezializazio-ikastaroa egin eta gainditu izana 10 punturekin baloratuko da, eta espezializazio-ikastaro bakartzat hartuko da.

#### 5.2.2.– Titulazio eta diploma ofizialak baloratuko dira.

Titulazio eta diploma ofizialtzat hartuko dira soilik Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioak horrela aitortutakoak. Gehienez ere 30 puntu emango zaizkie, baremo honen arabera:

a) Goi-mailako Hezkuntzako Kualifikazioen Espainiako Esparruko 2. Mailan (Kualifikazioen Europako Esparruko 6. maila) kokatutako titulazio bakoitza 10 punturekin baloratuko da.



b) Goi-mailako Hezkuntzako Kualifikazioen Espainiako Esparruko 3. Mailan edo goragoan (Kualifikazioen Europako Esparruko 7. maila edo goragokoa) kokatutako titulazio bakoitza 20 punturekin baloratuko da.

Unibertsitateen berezko tituluak ez dira baloratuko.

5.2.3.– Ingelesa, frantsesa eta alemana jakitea. Balio akademikoa duten tituluak emateko legez gaitutako ikastetxeek emandako ziurtagiri ofizialaren bidez hizkuntza horien ezagutza agiri bidez egiaztatzea baloratuko da. Atal hau 10 punturekin baloratuko da gehienez, honako xehetasun eta maila hauen arabera:

a) Tarteko maila (Europako Hizkuntzen Erreferentzia Marko Bateratuko B2 edo baliokidea): 3 puntu hizkuntza bakoitzeko.

b) Maila aurreratua (C1 edo handiagoa, Europako Hizkuntzen Erreferentzia Marko Bateratuan edo baliokidean): 5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

Hizkuntza berak ezin izango du balorazio bat baino gehiago eragin; beraz, mailarik altuena duena bakarrik hartuko da kontuan.

6.– Lehiaketa-fasearen emaitzak Epaimahai kalifikatzailearen erabaki bidez argitaratuko dira, Hemeretzigarren Oinarriaren hirugarren atalean aurreikusitako moduan.

Hamargarrena.– Euskararen ezagutzaren balorazioa.

Euskara jakitea merezimendu gisa baloratuko da, gehienez ere 37 puntu, eta 37 puntu emango zaizkie egiaztatuta dutenei edo Euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin baliozkotzeari eta parekatzeari buruzko azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuan (2010eko azaroaren 15eko EHAA, 219. zk.) ezarritakoaren arabera aintzatetsi edo parekatu direnei, eskabideak aurkezteko epearen amaiera-datan, honako baremoarekin bat etorritik:

Ertzaintzaren 1. Hizkuntza-eskakizuna: 10 puntu.

Ertzaintzaren 2. Hizkuntza-eskakizuna: 37 puntu.

Hautaketa-prozesuan ez da euskararen ezagutza egiaztatzeko probarik egingo.

Ez da beharrezkoa izango administrazio jarduleak dagoeneko egiaztatuta dituen hizkuntza-eskakizunak egiaztatzea, eta administrazioak ofizioz egiaztatuko ditu.

Hori oinarri hartuta, Epaimahai Kalifikatzaileak Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako Zuzendaritza Nagusiari eskatuko dio oposizio-fasea gainditu duten pertsonen hizkuntza-eskakizun egiaztatuak egiazta ditzala, oinarri honetan ezarritako parametroen arabera, baloratu beharreko hizkuntza-eskakizun guztiak Zuzendaritza horretako Ertzaintzaren Hizkuntza Eskakizunen Erregistro Ofizialean jasota baitaude.

Euskararen ezagutzaren balorazioaren emaitzak epaimahai kalifikatzailearen erabaki baten bidez argitaratuko dira, Hemeretzigarren Oinarriko hirugarren atalean aurreikusitako moduan.

Hamaikagarrena.– Oposizio-lehiaketaren azken kalifikazioa.

1.– Oposizio-lehiaketaren azken puntuazioa bi faseetan lortutakoen batura izango da, euskararen ezagutza merezimendu gisa ebaluatzetik ateratzen dena gehituta, eta hautaketa-prozesuan parte hartzen duten pertsonen lehentasun-ordena zehaztuko du.

2.– Sailkapenaren ordenako puntuazio-berdinketak honako irizpide hauen arabera ebatziko dira, ezartzen den ordenaren arabera:

- a) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea.
- b) Kategoria handiagoa eduki izana Ertzaintzako karrerako funtzionario gisa.
- c) Oposizioko lehen proban puntuazio hobea lortu izana.

3.– Hautaketa-sistema osatzen duten proben eta merezimenduen sailkapena amaitutakoan, Bosgarren Oinarrian aurreikusitako Epaimahai kalifikatzaileak, Hemeretzigarren Oinarrian aurreikusitakoarekin bat etorritik, honako hauek onartu, argitaratu eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiari bidaliko dizkio:

- a) Oposizio-lehiaketa puntuazio handienetik txikienera gainditu dutenen zerrenda.
- b) Hautatutako pertsonen zerrenda, hautaketa-prozedura sailkapen-hurrenkeraren arabera gainditu dutenek eta deitutako plaza-kopuruan lekua dutenek osatua.
- c) Hautatu ez diren pertsonen zerrenda, sailkapen-hurrenkeraren arabera hautaketa-sistema gainditu duten eta deitutako plaza-kopuruan lekurik izan ez duten pertsonen zerrenda osatua.

4.– Efikazia- eta efizientzia-printzipioak aplikatuz, hautatutako izangaien zerrendan edozein arrazoiengatik sor daitezkeen lanpostu hutsak Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako Zuzendaritza Batzordearen bidez bete ahal izango dira hurrengo izangaiekin, aurreko puntuko c atalean ezarritako sailkapen-ordenari jarraituz, deitutako plaza guztiak bete arte. Ebazpen horiek Hemeretzigarren Oinarrian aurreikusitako gisa ikertuko dira.

Hamabigarrena.– Betekizunak egiaztatzea eta praktiketako Ertzaintzaren Ikuskapen Eskalako ofizialak izendatzea.

1.– Hautatutako pertsonak, deialdian parte hartzeko eskatzen diren baldintzak betetzen dituztela behar bezala egiaztatu dutenak, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako Zuzendaritza Nagusiak izendatuko ditu, praktiketako Ertzaintzaren Ikuskapen Eskalako ofizial, Hemeretzigarren Oinarrian aurreikusitakoaren arabera argitaratuko den ebazpen baten bidez, Prestakuntza-ikastaroaren hasiera-datarekin batera.

2.– Baldintzak ez betetzeagatik uko-egiterik edo bazterketarik gertatzen bada, aurreko paragrafoan adierazitako Ebazpena argitaratu baino lehen, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako Zuzendaritza Nagusiak erabakiko du hautaketa-prozeduratik kanpo utziko diren eta ordeztuko diren, betiere ezarritako sailkapen-ordenaren lehentasun-ordenari jarraituz, uko-egite edo baztertze horien ondorioz deialdiko lanpostu-kopuruan sartzeko diren pertsonak, betiere eskatutako baldintzak betetzen dituztela egiaztatu ondoren.

Hamahirugarrena.– Prestakuntza-ikastaroa.

1.– Prestakuntza-ikastaroan sartzeko eskubidea duten Ertzaintzako Ikuskapen Eskalako ofizialak hainbat txandatan banatu ahal izango dira ikastaroa egiteko.

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako Zuzendaritza Nagusiak atxikiko ditu txandak.

Txandetara atxikitzeko, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

a) Lan- eta familia-bizitza uztartzeari buruzko Legea aplikatzearen ondoriozko inguruabarrak; ezkontza eta erditzeak, prestaketak edo erditze ondokoak eragindako egoerak. Inguruabar horiek

aintzat hartu ahal izateko, ukitutako pertsonen Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiaren aurrean alegatu beharko dituzte, Hamabigarren Oinarriaren lehenengo atalean adierazitako ebazpena argitaratu aurretik.

b) 10.3.a) oinarrian ezarritako lehentasun-hurrenkera.

2.– Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako Zuzendaritza Nagusiak izapidetuko du interesdunei ikastaroan sartzeko jakinarazpena, Giza Baliabideen Zuzendaritzaren bidez.

3.– Prestakuntza-ikastaroa haren Ikasketa-planaren arabera egingo da.

4.– Prestakuntza-ikastaroa Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademian edo haren Zuzendaritza Nagusiak izendatzen dituen zentro edo bulegoetan egingo da.

5.– Prestakuntza-ikastaroaren azken kalifikazioa Hemeretzigarren Oinarrian aurreikusitakoaren arabera argitaratuko da.

Lan- eta familia-bizitza uztartzeari buruzko Legea aplikatzearen ondoriozko inguruabarrak aplikatuz txanda bati atxikitako prestakuntza-ikastaroa egiten duten pertsonen dagokienez, ezkontzari eta erditzeak, prestakuntzak edo erditze osteak eragindako egoerei dagokienez, kalifikazio hori ez da argitaratuko eta etenda mantenduko da 10.3.a) Oinarrian ezarritako lehentasun-ordenaren arabera 10.3.a) postuan dagoen pertsonaren prestakuntza-ikastaroaren kalifikazioa argitaratu arte.

6.– Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako Zuzendaritza Nagusiak baztertutzat joko ditu prestakuntza-ikastaroa gainditzen ez dutenak.

7.– Prestakuntza-ikastaroa egiten ari den edozein unetan, ikaslearen espedientetik ondorioztatzen bada ezin duela gainditu, prozesutik kanpo utzi ahal izango da, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako Zuzendaritza Nagusiaren Ebazpen baten bidez, interesdunari entzun ondoren.

Hamalagarrena.– Praktikaldia.

1.– Praktikaldia prestakuntza-ikastaroa gainditu duten pertsonen egingo dute, beren jarduera-arloen arabera Ertzaintzaren Ikuskapen Eskalako ofizialen prestakuntza integrala eta Ertzaintzaren polizia-zerbitzuen egitura eta funtzionamendua lanbide-kategoria horri dagokionez bereziki ezagutzen saiatzeko egokienak diren zentro edo bulegoetan.

2.– Praktikaldia hasi aurretik, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako Zuzendaritza Nagusiak Ebazpena emango du, praktikaldia baloratzeko eta gainditzeko prozedurak, sistemak eta iraupena ezartzeko eta praktikaldiko destinoak esleitzeko. Ebazpen hori Hemeretzigarren Oinarrian aurreikusitakoaren arabera argitaratuko da.

Giza Baliabideen Zuzendaritzak zehaztu eta esleitu ditu praktiketako destinoak, zuzendaritza horrek ezarritako irizpideen arabera, eta une oro errespetatuko dira publikotasunaren, merezimenduaren eta gaitasunaren printzipioak.

Lan- eta familia-bizitza uztartzeari buruzko Legea aplikatzearen ondoriozko inguruabarrak aplikatuz txanda bati atxikitako prestakuntza-ikastaroa egin duten pertsonen, ezkontzei eta erditze, prestatze edo erditze ondoko egoerei dagokienez, 10.3.a) Oinarrian ezarritako lehentasun-ordenaren arabera aurreko lanpostuan sailkatuta dagoen pertsona hasten den egunean hasiko da praktikaldi ebaluagarria.

3.– Praktikaldian, Ertzaintzaren Ikuskapen Eskalako ofizial kategoriari dagozkion zereginak gauzatzearekin lotutako eraginkortasun profesionala ebaluatuko da. Ebaluazioa praktikaldiak irauten duen bitartean gertatzen diren gertakariei buruzkoa baino ez da izango.

4.– Praktikak Gai edo Ez-gai gisa kalifikatuko dira, eta kalifikazioak hemeretzigarren oinarrian aurreikusitakoaren arabera argitaratuko dira.

5.– Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiak hautaketa-prozeduratik kanpo utziko ditu praktikaldia gainditzen ez duten pertsonak.

6.– Ertzaintzako Ikuskapen Eskalako karrerako funtzionario ofizialordeak praktikaldia egitetik salbuetsita egongo dira.

7.– Praktikaldia gainditzen ez duten pertsonak hautaketa-prozeduratik kanpo uztea proposatu du Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako Zuzendaritza Nagusiak.

Hamabosgarrena.– Praktiketako ofizialen Araubide Juridikoa.

1.– Praktiketako ofizialek Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren Barne Araubidean ezarritako diziiplina-araubideko arauak bete beharko dituzte, eta, ordezkot gisa, Euskal Autonomia Erkidegoko polizia-kidegoetako diziiplina-araubideko arauak, irakaskuntzako diziiplina-falta soila ez den kasuetan. Euskal Herriko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legearen 54.2 artikuluan aurreikusitako ordainsariak aplikatuko zaizkie

2.– Praktiketako ofizialei lizentzia bat emango zaie ofizialorde edo agente lehena kategorian betetzen zuten lanpostuari dagokionez. Lizentzia hori ordaindua izango da, salbu eta Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 22ko 1/2020 Legegintzako Dekretuaren 74. artikuluan aurreikusitako ordainsariak jasotzea aukeratzen badute.

3.– Praktiketako ofizialek izaera horri eutsiko diote kategoria horretan karrerako funtzionario izendatu arte, edo hautaketa-prozesutik kanpo geratu arte.

4.– Prestakuntza-ikastaroa eta praktikaldia nahitaezkoak eta baztertzailleak izango dira, banaka kontuan hartuta, eta ez sartzeak edo ez gainditzeak pertsona hautaketa-prozesutik kanpo uztea ekarriko du automatikoki, eta Ikuskapen Eskalako ofizial kategorian sartzeko izan ditzakeen esku-bide guztiak galduko ditu. Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako Zuzendaritza Nagusiak deklaratu du kanporatzea.

Hala ere, aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, ezinbesteko kausak tarteko, ikastaro edo praktikaldian sartzen ez diren edo praktikaldi horiek betetzen ez dituzten pertsonak, egoera eragozleak desagertu ondoren egiten diren hurrengoetan parte hartu ahal izango dute, praktikaldia amaitu baino lehen. Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako Zuzendaritza Nagusiak aztertuko du kausa, eta dagokion ebazpena eman beharko du.

Hamaseigarrena.– Karrerako funtzionarioak hautatzeko eta izendatzeko prozeduraren behin betiko sailkapena.

1.– Hautaketa-prozeduraren behin betiko sailkapen-ordena egiteko, oposizio-lehiaketan, prestakuntza-ikastaroan eta praktikaldian lortutako kalifikazioak batuko dira.

2.– Praktikaldiko azken txanda amaitu eta hurrengo bi hilabeteen barruan, eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiak proposatuta, Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeak karrerako funtzionario izendatuko ditu hautaketa-prozedura gainditu duten pertsonak; izendapena Hemeretzigarren Oinarrian aurreikusitakoaren arabera argitaratuko da.

Izendapena Ertzaintzaren Ikuskapen Eskalako ofizial gisa egingo da.

3.– Izendatutako pertsonak 10 eguneko epea izango dute, gehienez, lanpostuaz jabetzeko, izendapena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Horrela egiten ez badute, ezinbesteko kasuetan izan ezik, haien jardun guztiak ondoriorik gabe geratuko dira, eta karrerako funtzionario izateko dituzten eskubide guztiak galduko dituzte.

Hamazazpigarrena.– Zehapenak ezartzea falta astunengatik edo oso astunengatik.

Ofizial kategorian sartzeko izangaiek diziplina-espedita hasita dutenean edo geroago hasten zaienean, hautaketa-prozesuan onartzeko, prozesuan jarraitzeko eta ofizial kategorian sartzeko, ezinbestekoa izango da diziplina-espedita horietan falta astunengatik edo oso astunengatik zehapenik ez ezartzea.

Hemezortzigarrena.– Hautaketa-prozeduran pertsonak identifikatzea.

Hautaketa-prozedura honetan parte hartzen duten pertsonak (hautaketa-prozesua, prestakuntza-ikastaroa eta praktikaldia) eskaeran erabilitako identifikazio profesionaleko zenbakiaren bidez identifikatuko dira. Era berean, identifikazio profesionaleko zenbaki hori bera erabiliko da Ertzaintzaren Ikuskapen Eskalako ofizial izendatzeko.

Hemeretzigarrena.– Argitalpenak.

Berariaz bestelakorik xedatu ezean, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako iragarki-oholean argitaratuko dira argitalpenak, hargatik eragotzi gabe Gurenet saileko intranetean kontsultatu ahal izatea. Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako iragarki-oholean noiz argitaratuko den erabakigarria izango da epeak zenbatzeko.

Hogeigarrena.– Kalte-ordainak.

Pertsonak barneko edozein hautaketa-prozesutara aurkeztea borondatezkoa denez, hautaketa-fasean, prestakuntza-ikastaroan edo praktikaldian bidaiak edo bestelako gastuek ez dute inolako eskubiderik sortuko, eta, beraz, Administrazioak ez du gastu horiek ordaindu beharrik izango.

Hogeita batgarrena.– Errekurtsoak.

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez diezaioke interesdunek Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako Zuzendaritza Nagusiari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, zuzenean aurkara dezakete administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, bi hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Azken kasu horretan, Administrazioarekiko Auzien Epaitegien lurralde-eskumeneko arauak errespetatu beharko dira, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 14. artikuluan jasotakoak.

Interesdunek aurkaratu ahal izango dituzte deialdi honetatik, Epaimahai kalifikatzailearen jardunetik edo Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren organoetatik eratorritako administrazio-egintzak, administrazio-prozedura erkidea arautzen duen araudian aurreikusitako kasuetan eta moduan.

Arkauti, 2021eko martxoaren 2a.

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusia,  
ANDRES ZEARRETA OTAZUA.

## ERANSKINA

## GAI-ZERRENDA

## IKUSKAPEN ESKALAKO OFIZIALA

## ZUZENBIDE PENALA:

- 1.– Delituak: zk-ko 10. artikulutik 18ra.
- 2.– Erantzukizun kriminaletik salbuesten duten kausak: zk-ko 19. artikulutik 20ra.
- 3.– Erantzukizun kriminala arintzen duten inguruabarrak: zk-ko 21. artikulua.
- 4.– Erantzukizun kriminala astuntzen duten inguruabarrak: zk-ko 22. artikulua.
- 5.– Ahaidetasun inguruabar mistoa. Zk-ko 23. artikulua.
- 6.– Delituen erantzukizun kriminala duten pertsonak. Zk-ko 27. artikulutik 30era.
- 7.– Giza hilketa eta bere formak. ZK-ko 138. artikulutik 143ra.
- 8.– Lesioak. 147. artikulutik 156 ter-era.
- 9.– Askatasunaren aurkako delituak. 163. artikulutik 172 ter-era.
- 10.– Sorospen eginbearra ez betetzea. ZK-ko 195. artikulutik 196ra.
- 11.– Intimitatearen, norberaren irudirako eskubidearen eta egoitzaren bortxaezintasunaren aurkako delituak. ZK-ko 197. artikulutik 204ra.
- 12.– Ohorearen aurkako delituak. ZK-ko 205. artikulutik 216ra.

## PROZESAL PENALA:

- 13.– Epaile eta auzitegien lurralde-eskumena. Prozedura Kriminalaren Legeko 15 eta 15 bis artikulua.
- 14.– Sarrera eta erregistroa leku itxian. Prozedura Kriminalaren Legeko 545. artikulutik 574ra.
- 15.– Jurisdikzio-organoen eskumenak. Botere Judizialari buruzko 6/1985 Lege Organikoa.

## EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO OTSAILAREN 18KO 4/2005 LEGEA:

- 16.– Atariko titulua.
- 17.– I. Titulua: Eskumenak, funtzioak, antolaketa eta finantzaketa.
- 18.– II. Titulua: Euskal herri-aginteen eta -administrazioen jardunean genero-ikuspegia txertatzeko neurriak.
- 19.– III. Titulua: Hainbat esku-hartze arlotan berdintasuna sustatzeko neurriak.

## POLIZIA ZIENTIFIKOA:

## 20.– Kriminalistika:

- Gogoeta orokorrak.
- Begizko ikuskapen tekniko-poliziala.

## 21.– Lofoskopia:

- Lofoskopia hatzak.
- Kiroskopia.
- Daktiloskopia.
- Aditu txosten daktiloskopikoa.
- A.F.I.S.– METAMORPHO.

## 22.– Lofoskopia-hatzak errebelatzea:

- Hatz-marka uztearen osagaiak eta eragina tratamenduan
- Hasi aurretik.
- Ikusten diren lofoskopia-hatzak.
- Lofoskopia-hatz ikusezinak.
- Lofoskopia-hatzak bilatzea eta aurkitzea.
- Objektuak manipulatzeko.
- Pintzelak.
- Hatzak transplantatzea.
- Lofoskopia-hatzak errebelatzea.
- Lofoskopia-hatz bat altxatzeko jarraitu beharreko pausuak.
- Etiketatzea.

## 23.– Identifikazio pertsonala:

- Aurrekari historikoak.
- Gogoeta orokorrak.
- SIGMA polizia-fitxa.
- Argazki robota.

## 24.– Dokumentoskopia eta Grafistika:

- Definizioa.
- Jarduteko esparruak.
- Dokumentu-motak.



- Lortu beharreko emaitzak
- Bilketa eta enbalaketa.
- Dokumentoskopiari buruzko nozio laburtxoak.
- Indarrean dauden agiri berriak.

25.– Pertsonen identifikazioan argazkien bidez alderatzeko teknikak. Azterketa fisionomikoak.

- Sarrera.
- Irudiak alderatzeko teknikak.
- Irudiak hautatzeko irizpideak.
- Lortu beharreko emaitzak.

26.– Antropologia forentsea:

- Hezur hondarrak.

27.– Armak:

- Balistika forentsea.
- Kalibreak.
- Arma zuriak.
- Arma laburrak.
- Arma luzeak.
- Kartutxoak.

28.– Kristalak:

- Gogoeta orokorrak.
- Altxaketa.
- Enbalaketa.
- Lortu beharreko emaitzak.

29.– Oinetakoen eta pneumatikoen hatzak.

- Oinetakoen hatzak.
- Pneumatikoen hatzak.

30.– Hainbat motatako ebidentziak:

- Gogoeta orokorrak.
- Metalari buruzko aldaketak.
- Ebidentziak berreraikitzea.
- Korapiloak eta lokarriak.
- Tresnen markak.

## 31.– Ebidentzia biologikoak:

- Laginak batzean eta laborategira bidaltzean hartu beharreko neurriak.
- Odola.
- Ileak.
- Semena.
- Zelula hondarrak.
- Genetika forentsea aplikatzea.
- Erreferentziako lagina hartzea.

## 32.– Ebidentzia kimikoak:

- Sute-hondarrak.
- Likidoak.
- Pinturak.
- Zuntzak.
- Abusuzko drogak-Substantzia estupefazianteak.
- Tiro-hondarrak.

## 33.– Informazio-teknologiak:

- Oinarri orokorrak.
- Atalaren funtzioak.
- Ebidentzia informatikoak.

## 34.– Irudia:

- Sarrera.
- Irudien tratamendu digitala.

## 35.– Ebidentzien tratamendua esparruan:

- Ertzaintzako Polizia Zientifikoko Unitateari ebidentziak bidaltzeko jarraitu beharreko metodoa.
- Ibilgailuak bidaltzeko prozedura, tratamendu integrala emateko.
- Ebidentziak bidaltzea (49 Aplikazioa).
- Esparruan ebidentziak tratatzeko jarraitu beharreko metodologiaren laburpena eta laginen kalitatearen irizpidea.

## 36.– Argazkilaritza Begizko Ikuskapen Tekniko-polizialean.

- Argazki motak.
- Egintza-tokiaren argazkia argazki-kasu batzuetan.

– Ebidentzien argazkia.

– Argazki digitala.

#### EAE-KO POLIZIARI BURUZKO ARAUDIA:

37.– Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 22ko 1/2020 Legegintzako Dekretua.

38.– Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzeko ekainaren 28ko 15/2012 Legea.

39.– Ertzaintzaren egitura.

#### ZUZENDARITZARAKO ESKUMENAK:

40.– Kalitatearen kudeaketa. Egungo ereduak. Kudeaketa aurreratuaren sistema.